

Inaxio Mujika Iraola eta Alberdania: 12 urte euskal liburugintzaren inertzia astintzen

Óscar DE MIGUEL*



Literatura hutsik egin, genero guztiak jorratu, euskaraz zein gaztelaniaz argitaratu eta euskal liburugintzaren inertzia astindu, hauek izan ziren Alberdania argitaletxearen zutabeak sortu zenean (1993an) eta hauek dira gaur ere. 12 urte hauetan aipaturiko helburuak erdiesteko bilduma polita osatu dute, sailetan ongi antolaturik (*Narrazioa, Klasikoak Alberdanian, Ifrentzuak, Literatura uibertsala, Poesia, Saiakera, Bertako saila, Alga, Zerberri, Ostiral Saila* eta haur eta gazteendako *Kalamatxi* eta *Osinberde*). Egileei

erreparatuz gero, zerrenda ere harrigarria da: Atxaga, Itxaro Borda, Unai Elorriaga, Anna Gavalda, Günter Grass, Arantxa Iturbe, James Joyce, Anjel Lertxundi... Gehiago jakiteko: www.alberdania.net.

97

—Zuek Alberdania berandu xamar sortu zenuten (1993an). Garai horretarako argitaletxe asko lanean ari zen. Zertarako beste bat? Hutsuneren bat betetzeko?

—Lehenengo liburuak 1993ko maiatzean azaldu zen, beraz 12 urte badaramazkigu honetan. Zuk esan duzu berandu xamar surtu ginela eta egia da, ordurako bazeuden argitaletxee handiak (Elkar, Erein eta Susa bazeuden). Guk orduan inertzia bat bazela sumatu genuen, inertziaz mugitzen zen liburugintza; gu ur geldi horiek pixka bat astintzeko eta mugiarazteko sortu ginen. Bazegoen beste asmo bat, guk abentura honetan sartu nahi genuen literatura hutsik egiteko, beste argitaletxe handi horiek literaturaz gain eskola liburuak ere egiten dituzte, beren produkzioaren ehuneko handi bat eskola liburua da. Guk horri ihes egin nahi genion eta literatura hutsik egin, baina literatura zentzu zabalean, alegia, bai goi literatura (komatxoeren artean nahi baduzu) eta kontsumokoa ere, nolabaiteko deitzeko bidea da, baina horretan ere sartu nahi genuen. Pixkanaka genero guztietan sartu nahi genuen eta horrela hasi ginen, alde batekin poesia liburu batekin, entsaio batekin eta narrazio batekin, oker ez banago. Hortik hori osatzen joan ginen, haur literaturara pasatuz, gero *Ze berri* saila sortu genuen, nolabait eguneroko bizitza, pilpilean dauden gaiei lotzen zaiena... Sartu ahal izan dugun guztietan sartu gara eta nik uste dut literaturaren aukera guztiak ikutu ditugula eta hura izan zen gure asmoa

* Barañaingo Herri Liburutegia

eta horrekin segitzen dugu: literaturaren mugetan, baina literaturaren muga pasatu gabe. Lehenengo momentutik ez dugu lortu genero guztiak ikutzea, beti gelditzen da zerbait, baina, adibidez, lehenengo hiruzpalau urteetan ez genuen itzulpenik atera, baina gero horretan ere sartu ginen; hasieran poliki eta gero *Literatura Unibertsal* bildumako liburuekin 101etik aurrera Elkar argitaletxearekin batera... Horrela dagoeneko badugu hainbat liburu euskaraz argitaratuta literatura unibertsaleko erreferentzia badirenak.

—Hortaz, itzulpenetan sarturik, baina, baina beti ere euskaraz eta gaztelerez argitaratuz. Zer dela eta aukeratu duzue bide hori?

—Bai, hala da, Hego Euskal Herrian dauden bi hizkuntza nagusiak landu, beti ere euskara nagusi izanda guretzat, baina saiatu gara gaztelaniazko liburu batzuk sartzen gure neurrien eta interesen arabera. Hasieran sailetan barrena sartu genituen (euskarazkoen ondoan), baina beste zerbait egin behar geuela ikusi genuen arrazoi askorengatik. Horrela 2000. Urtean *Alga* izeneko saila sortu genuen gaztelaniazko liburuak sartzeko, bai narrazioak (esaterako, Pedro Ugarteren narrazio liburuak, badaude saiakerak, Sánchez-Ostizen *Liquidación por derribo* eta berak ere egin zuen Barojaren biografia...) eta baita entsaio politikoak ere. Horretan euskartik itzulitako liburuak ere badira, bata Jokin Muñoz nafarrarena, iaz Euskadi saria jaso zuen *Bizia lo* (erdaraz *Letargo*), ekainean Arantxa Iturberen *Lehenago zen berandu* (gaztelaniaz *Ya ni siquiera es tarde*) eta aurten ere bi edo hiru liburu gehiago gaztelaniera itzultzeko asmoa badaukagu: Karlos Linazasororena eta Juan Gartziairen *Itzalen itzal*, 1993 hartan argitaratu genuen lehen liburuak hain zuzen ere. Neronena ere aterako da gaztelaniaz, euskaraz *Gerezi denbora* izena duena.

98

—Urte hauen buruan profesionalizazioa lortu duzue? Argitaratzea ogibide baduzue?

—Orain bai. Dena dela, zuk lehenbizi profesionalizazioa esan duzu eta gero ogibide. Nik uste dut biak diferente direla, nahiz eta sinonimotzat erabiltzen diren. Lehenengo momentutik profesionalak izaten saiatu ginen, nahiz eta lehenbiziko momentutik ez ginen horretaz bizi. 1993an beste lan batzuk egin behar genituen bizibidea ateratzeko, baina bi urte pasata, 1995ean edo, hortik bizitzen hasi ginen. Nire ustez profesionaltasunak badu, ogibidez gain, beste zentzu bat, gauzak arduraz eta bide profesionalean egitea eta hori, nik uste dut, lehenengo momentutik lortu dugu.

—Eta profesionaltasun horren barrenean Elkar argitaletxearekin duzuen lankidetzak kokatzen ahal duzue?

—Hori ez da daukagun lankidetzak bakarrik, Madrilgo *Fundamentos* argitaletxearekin beste bat egin dugu (Zalloren *El país de los vascos* beraiek Euskal Herritik kanpo atera zuten). Erakunde publikoekin ere egiten dugu, esaterako, Mitxelena liburu bat erdaraz eta euskaraz atera genituen (bere artikulua euskaraz eta itzulita). Elkarlan eta koedizio gehiago egin dugu, esaterako, Donostiako udalarekin hainbat liburu. Ahalik eta horrelako kolaborazio gehien egiten saiatu gara eta nik uste dut hori bizitasunaren seinalea dela, argitaletxe bat bizi da besteekin elkarlanean dakienean. Proiektuak inportanteena dira, baina batzuetan proiektuak aurrera ateratzeko bakoitzaren baliabideak eskas gelditzen dira eta besteen elkarlanarekin atera ahal dira.



—**Baina euskal merkatua hain txikia izanik, bada lekurik hainbeste argialetxe edukitzeko?**

—Hori *la pregunta del millón* da. Ez dakit, hori jakiteko merkatuaren azterketa serioa falta da, merkatua benetan zein den eta bere joerak nolakoak diren jakiteko. Hemen argialetxea bada bi liburu ateratzen dituen ere eta guk askotan urtean 30 baino gehiago ateratzen dugu; ez da gauza bera 80 ateratzen dituen (*Elkar...*) eta bi ateratzen dituen... Beraz, argialetxe asko dira? Bada, hasi kontatzen eta ez dira hainbeste. Ez dakit lekua dagoen, baina asko egoteak ere badu zerbait ona, horrela irakurle arretatsuak, erosleak, badu beti ere non aukeratu eta non mugitu. Gu sortu ginenean, 1993an, oso ideologizatuta zegoen: joera batekoak argialetxe batean eta beste batekoak beste batean eta gero *tiratzailak* edo beste argialetxe txikiagoak ere baziren. Gurea hori hausteko nolabaiteko saioa izan zen. Nik uste dut momentu honetan Susa eta gu izango gara literatura hutsik argitaratzen dugunak, *Igela* miresgarria ere badago oso ahalegin berezian, baina askoz gutxiago ateratzen du, eta aurreko tiratzaile guztiek segitzen dute. Horrela, argialetxeak elkar zirikatzen, irakurlearentzat aukera handiagoa da gutxi izanda baino. Zuk zerbait berria ateratzen duzunean beste argialetxeek erantzuten dute eta nahi eta nahi ez berritu egin behar dira gauzak.

—**Zuk lehen irakurle arretatsua aipatu duzu, baina merkatua hori baino frankoz zabalagoa da. Zure ustez nolakoa izan da bilakaera hondarreko 18 urteetan? Alegia, alfabetaturiko gazte franko azaldu da eta horrek, teorian, merkatua handitu behar luke, baina hala gertatu da ala belaunaldi gazte horiek irakurtzeari muzin egiten diote?**

—Horregatik esan dut merkatuaren analisi serioagoa behar dela, zer gertatzen den edo zer gertatu den jakiteko. Zuk aipatu duzun hori guretzat kezka handia da, irakurle gazteak gure-

ganatzea eta gure “zirkulu leialetik” zabaltzea. Alegia, badaukagu zirkulu bat (*Berria* erosten duena, euskal liburu eroslea), ez dakit zenbatekoa den, hori gainditzea argialetxe guztien aha-legina bada. Alde batetik badago liburu bat asko saltzeko bide bat: euskallegi eta eskolen zirkuitoan sartzea, hori bada nolabaiteko bermea liburuaren salmenta ohiturazko zenbakietatik goititzeko. Baina beste bat hau da, gure artean aski saiatua ez bada ere: gizartearen kezka duten liburuez interesak nolabait zabaltzea. Eman dezagun, guk asko saldu dugu *Ai, ama!* (Arantxa Iturberena) *Gay nauzu* (Iñigo Lamarcarena) eta *Naturaren mintzoa* (Pello Zabalarena). Hauek zirkulu horren kezkek gainditzen dituzte, alegia, zirkulu herretakoak erakartzen dituzten liburuak dira, berez erakargarriak direlako, baina bestelako irakurlegoa ere interesatuta dago liburu horiekin. Lekukotza humanoa duten liburuak gehiago saltzeko beste bide bat dira. Baina oso zaila da euskarazko liburuekin zirkulu hori gainditzea.

—Eta etorkizunean hori aldatzeko esperantzarik bai?

—Zuk aipatu duzun datu horretan (belaunaldi berriekin hainbat eta hainbat irakurle eta abar) badugu esperantza, baina beste kezka bat sortzen da ere, ez euskal irakurlearena bakarrik, baizik eta orohar liburu eroslearena. Garai batean, zinema, liburua eta beste hiruzpalau aisia-bide gehiago zeuden, baina momentu honetan askoz gehiago daude. Gaurko gazteek gertuagokoa dute internetarena, audiobisualak... Datu sinesgarriekin ezin dut esan, baina hori sumatzen dut; gaurko gazteak irakurtzen hasten dira, baina gero frankok uzten du bide hori eta beste batzuk hartzen ditu.

100

—**Eta bukatzeko hirukiaren hondarreko punta, argialetxe eta irakurleei buruz mintzatu gara, ari gaitezen orain euskal merkatuan munta handikoa den instituzioen lanari buruz. Oraindik beharrezkoa da?**

—Beste bat ahaztu zaizu: sortzailea.

—**Beraz, hirukirik ez, laukia baizik.**

—Oso inportantea da, sortzailerik gabe besteek ezin dute ezer egin, ez legoke libururik. Argialetxeak, bizirik badago, liburua jaso baino gehiago egin behar du. Argialetxeak sortzailea ilusionatuko duen proiektu bat eskaini behar du eta nik uste dut azkeneko urteetan asko aurreratu dugula. Sortzaile bati ideia bat ematea (horrelako liburu bat, jendea interesaruko duena) argialetxe bat bizirik delako seinalea izaten da. Batzuk onartzen dute eta beste batzuk ez. Guk badugu liburu franko horrela argitaratuta (eta beste argialetxeek ere, nik uste), adibidez lehen aipatutakoa, Pello Zabalarena, horrela sortu zen, guri bururatu hari zerbait eskaintzea eta berak mamitu bere moduan. Kontua liburua sortzea da eta guk, argialetxeek, badaukugu horretan ardura bat.

Bestetik, instituzioen laguntzei dagokienez batzuetan esaten dute euskal liburua subentzionatuta dagoela eta diru horri esker aurrera ateratzen garela ematen du, baina ez da hala, ez behintzat erabat. Euskal Gobernuak liburuak erdi prezioan erosten dizkigu liburutegiak, eskolak eta abar hornitzeko. Nafarroako gobernuak guri ez digu ezer hartzen, ez dakit besteei, baina guri ez.